



Uda giroak ez du jai egin Zabaletan

Teresa sorginak piztutako Zabaletako festen metxak asteburu osoa iraun du, musika, herri kirolak eta janari artean / 8-9

TXINTXARRI

Hobekuntza baten bila

Lasarte-Oriako hiru ikertzailek gizarteari egin nahi dioten ekarpena azaldu dute / 6-7

Sasoetako aktore txikiek eta euskal dantzariak hasi dute Kukukaren urteroko erakustaldia / 2

Zegama-Aizkorri lasterketa osatu du Xanti Trantxe korrikalariak, ikusleen animoek bultzatuta / 10



AURREMATRIKULA

DOKUMENTAZIOA:

- NAN
- Ikasketa espedientea

EKAINA
3tik 14ra

☎ 943 36 46 00

USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

www.lhusurbil.eus



URTINEA

Urdaiaga auzoa, 11 · USURBIL
943 917 562

LORADENDA · EZKONTZA ETA EKITALDIAK · DEKORAZIOA



Pankarta eskuetan, eta txarangaren laguntzarekin, kultur etxerainoko bidea egin zuten astelehenean Kukukakoek. TXINTXARRI

Hamabost egun, kurtso oso bat erakusteko

Kukuka Antzerki Eta Dantza Taldeak urteroko hamabostaldia hasi du. Oaintxe in Deu txarangarekin ireki dute astea. Sasoetako eta Zubietako Lehen Hezkuntzako gaztetxoek oholtza gainean erakutsi dituzte antzerkian ikasitako abileziak

Txintxarri

Kultur etxeko auditoriumak joan-eterri handia izan du aste honetan; eta hasi besterik ez da egin. Kukuka Antzerki Eta Dantza Taldeak hamabostaldia hasi du; erakusleio bikaina da ikasturte honetan egin duten lana ikusteko. Talde asko eta asko ditu Kukukak, eta horiek guztiek bi aste hauetan ikuskizunak eskainiko dituzte. Aste honetan Sasoeta ikastetxeok eta Zubietako Lehen Hezkuntzako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurtxoak ere aritu dira entseatutakoa erakusten.

Edonola ere, kultur etxera gerturatzerik izan ez duenak oraindik izango du aukera horretarako. Helduek dantza eta antzerkia eskainiko dute larunbatean, eta hurrengo astean Landaberri eta Oriarteko ikasleen txanda izango da.

Oaintxe in Deu txarangaren laguntzarekin ireki zuten astea astelehenean. Tronpeta eta danbor doinuekin batera kalejiran joan ziren kultur etxera. Sasoetako LH2 eta LH3ko haurrek hiru ikuskizun eskaini zituzten

gero: *Superheroi eroak!*, *Non dago Simba?* eta *Zirkus Marabillus, Bol 2*.

Goiz eta arratsalde

Egunean bi ekitaldi egin dituzte gaztetxoek. Lehena 10:00etan, ikaskideei eskainia. Bigarrena 19:00etan, guraso eta lagunentzako.

Asteartean Zubietako antzerkigileen txanda izan zen. HH5 mailatik LH6ra bitarteko ikasleek hiru antzezlan aurkeztu zituzten: *Euskal Herriko Ninjak*, *Xomorrolandia* eta *Denboraren makina*.

Baina Kukuka antzerkia bakarrik ez da. Euskal dantza irakasten dute ere elkarteko irakasleek. Asteazken arratsaldean HH5 eta LH3 bitarteko haurrek dantzatu zuten Manuel Lekuonan.

Ostegunean amaitu zuten Sasoetakoek haien emanaldia, LH4 eta LH6 bitarteko taldeekin; *Gora edo behera* lana plazaratu zuten. Nolanahi ere, antzerki eta festa dantzak hurrengo bi asteburuetan jarraituko du kultur etxea giroten.



Sasoetako lehenera emanaldia: *Superheroi eroak!*. TXINTXARRI



Zubietako haurrek ere parte hartzen dute Kukukan. Irudian, *Euskal Herriko Ninjak* lana. TXINTXARRI



Euskal dantzaren jarraitzaile txiki asko ditu Kukukak, asteazkenean erakutsi zuten moduan. TXINTXARRI



Sasoetako zaharrenek ostegunean itxi zuten haien emanaldia. TXINTXARRI

Ikasturte oparoari merezitako agurra

Bertso Eskolako ikasleek kurtso amaierako ekitaldia egin dute, Beñat Gaztelumendi eta Alaia Martin bertsolariekin batera, Ttakunenean. Aurten eskolaz kanpoko zortzi talde osatu dituzte Ane Labaka eta Haritz Mujika irakasleek, 6. mailan, 1. eta 2. DBHn

Adrian Garcia

Behar bezalako amaiera eman dio Bertso Eskolak ikasturte emankorrari: doinu eta errima artean, eta askari eder batekin. Zortzi talde osatu dituzte aurten, Ane Labaka eta Haritz Mujika bertsolarien gidaritzapean, eskola orduraz kanpo asteen ordubetez bertsotan lehen urratsak egiteko. Joan den asteartean 35 gaztetxo baino gehiago bildu ziren Ttakunenean; indarrak berriro ondoren, bi gonbidatu berezirekin izan ziren bertsotan: Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendi bertsolariekin.

Bertso Eskolan ongi prestatu dute ekitaldia. Izan ere, ikasleek beraiek eman diete ongietorria bi gonbidatuei. Haien erantzunean ere iragarri da nolakoa izango zen hartu-emana. Gaztetxoak ez dira bertsolarien entzule soilak izan, modu askotan parte hartu baitute saioan.

Taldeka Martin eta Gaztelumendi agurtu ostean, gai jartzaile lanak egin dituzte. Barre egin dute bertsolarien ateraldiekin, horretara bideratutako gaiak baitziren asko; barruko arropa beheko pisura erori zaion bizilagunarena, esaterako. Matxismoa ere jorratu dute: autoa erosi nahi baina saltzaileak kasu egiten ez dion



Martin eta Gaztelumendi, Bertso Eskolako ikasleei erantzuten. TXINTXARRI

emakumearena egin du Martinek, Gaztelumendiren laguntzarekin.

Hitz jokoan

Bertso asmakizunekin ere ibili dira jolasean. Ikasleek hitz bat proposatu diote bertsolari bakoitzari, besteak ikusi gabe; koplen bidez asmatu behar izan dute kideari egokitutakoa. Gutxiago kostatu zaio Martini *klima aldaketa* asmatzea, *ipurdia* hitzaren inguruan Gaztelumendik erraztasun asko izan arren.

Edonola ere, gaztetxoek gozatu egin dute bi puntako bertsolariekin. Haiekin ere izan

dute konplizitate apur bat, *nor da nor?* jokoan. Koplen bidez deskribatu dituzte ikasleetako batzuk.

5. eta 6. mailan badute gaztetxoek bertsolaritzan hastapenak egiteko aukera, eskola orduen barruan. Gero nahi duenak sakontzeko aukera du Bertso Eskolaren bidez, eskolaz kanpo. Aurten 6. mailan lehen aldiz taldea atera dute. Guztira zortzi talde eta 35 ikasle baino gehiago izan dituzte ikasturte honetan. Hurrengoan ere harrobia sortzen jarraitu nahi dute.



NEREA SEGURA

Zaplastekoa plastikoari

Karbohidrato, gantz, proteinak eta plastiko-hondakinak jaten ditugu, egunero.

Plastikoaren aroan bizi gara. Materiala xaflakorra da eta pisu arinekoa, gainera, kostu baxua du. Abantailak jakinak izan dira teknologiaren iraultzan. Arazoa non dago? Arduragabeko erabileran. Elikadurari dagokionez, gehiegi erabiltzen da: erosteko poltsak, produktuen bilgarriak eta etiketak, ur-botilak, tapoiak, lastotxoak, film plastikoa... adibide gutxi batzuk dira.

Minuturo itsasoan zabor kamioi bat husten da munduan (kopuru handia, plastikoa da). Suntsiezina izateko sortuta izan arren, polimeroak mikroplastikoetan zatikatzen dira eta bazka-sarera igarotzen dira. Plisti-plasta plastikoen artean, arrainak dira kaltetunak, arnasterakoan eta elikatzerakoan zuzenean metatzen dituztelako. Eta bueltan, guk gure hondarrak jaten ditugu. Baina hartzen duguneko gehiena, airetik gure platerara doa zuzenean: 100 partikula plater bakoitzeko eta 18 partikula ur litro bakoitzeko. Europako txorrotako uraren %70 kutsatuta dago, baina hura saihesteko botilaratuta erostea ironikoa litzateke. Erabilera bakarreko botilak, 500 urte behar dituzte deskonposatzeko; tapoiak betirako diren bitartean.

Baina kontsumitzaileok, zerk esana dugu: plastikoetan bilduta dauden elikagaiak ez erosiz eta plastikozko-poltsak ez erabiliz (120 unitate darabilgu urtero). Eman zaplastekoa plastikoari! Eraman potoak edo oihalezko poltsak pisura erosteko eta zabaldu argazkia. Ea efektu kutsakorra —baikorra— lortzen dugun. #zaplastekoaplastikoari.

Gazteen aisialdirako dirulaguntzak emango ditu udalak

Udalak gazteen aisialdira begira diru laguntza lerroa zabalduko du aurki. Gazteen autogestioa lehenetsiko du laguntzak, Jesus Zaballos jarduneko alkateak eta Txus Alonso Gazteria zinegotziak azaldu dutenez. 3.500 euroko diru poltsa jarriko du udalak, aurkezten diren proiektuen artean banatzeko. Laster

argitaratuko dira oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Parte hartzeko baldintzak ondorengoak dira: Lasarte-Orian erroldatuta egotea beharrezkoa da, eta ekintza herrian bertan egin behar da. 16-33 urte bitarteko adina izan behar dute eskatzaileek. Adin txikikoen izenean tutoreek aurkeztu beharko dute. Onartutako proiektuen artean 1.050 euro banatuko dituzte, eta gainerakoa puntuazio baten bidez.

txintxarri

San Pedrotako zenbaki bereziak ekainaren 21ean eta uztailaren 5ean

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?

Jar zaitez gurekin harremanetan!

publizitatea@ttakun.eus | 943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66

Israel & Grezia

IRTEERA 2019ko IRAILEAN
Noaak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

NOAQA
BIDAIAK

T.: 943 373 613 • info@noaqa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Agenda 21eko udalbatzar berezian parte hartu zuten gaztetxoak, irakasleak, Artelatzeako kideak eta udal ordezkariak. TXINTXARRI

Kontsumo arduratsuaren aldeko neurrien eskaera

Ezohiko udalbatzarra egin dute Lasarte-Orian. Eserlekuetan zinegotziak egon beharrean, ikastetxeetako LH5 eta LH6 mailako gazteak izan dira. Agenda 21aren barruan, kontsumo jasangarria landu eta udalari hori bultzatzeko proposamenak egin dizkiote gaztetxoek

Txintxarri

Kontsumo jasangarria izan da aurtun Landaberri ikastetxeeko eta Sasoeta-Zumaburuko LH5 eta LH6 mailako gaztetxoek Agenda 21ean aztertu duten gaia. Etxeko, ikastolako eta herriko kontsumoa neurtu ostean, udal ordezkariari haien konpromisoa eta eskaeren berri eman diete. Jesus Zaballos jarduneko alkateak, Maite Iglesias Hezkuntza saileko buruak eta Agustin Valdivia Hirigintza arduradunak adi entzun dituzte, eta proposamen bat baino gehiago jaso dute.

Batzarra hasi baino lehen, Agenda 21 egitasmoak Lasarte-Orian hamargarren edizio duela ekarri dute gogora. Ikastetxeetako haurrek egindako bideoa ere erakutsi dute. Urte horietan guztietan landu diren gaiak eta aurrera eraman diren proposamenak ikusi ahal izan dira horretan.

Ikasturte honetan, HH3tik LH6rako 1.400 bat haurrek Agenda 21aren barruan gauzatu dituzten ekintzen errepaso egin dute. Hala nola, kontzientziazioa lantzeko

Hondakinen jolasa edo udalbatzarrean ikusgai zegoen argazki eta marrazki lehiaketa.

Konpromisoak eta eskaerak

LH5 eta LH6 mailako gaztetxoek kontsumo jasangarria landu dute aurtun, eta udalbatzar berezi horretan aurkeztu dituzten konpromiso batzuk aurrera eramateko hitza eman dute. Besteak beste, etxeko jostailuak berrerabili edo bigarren eskuko azoketara eramatea, ura eta argiaren kontsumo arduratsua egitea, etxeko eta ikastetxeetako materiala era egokian erabiltzea, azoka eta denda txikietan erostea, erosketetarako poltsa berrerabilgarriak erabiltzea edo hamaiketakorako tuperrak eta kantiplorak erabiltzea.

Azkenik, eskari ugari egin diete udal ordezkariari.

**KONTSUMO
ARDURATSUA
SUSTATZEKO
KANPAINAK ESKATU
DITUZTE GAZTEEK**

Birziklapenari edo ura eta argiaren kontsumo arduratsuari buruz sensibilizazio kanpainak egitea, jaietan tabernek edalontzi berrerabilgarriak erabil ditzaten sustatzea, birziklapen tasari buruzko informazio gehiago ematea, edukiontzi guneetan birziklapenari buruzko informazioa jartzea, lurazpiko edukiontziak konpontzea, bizikletak maileguan uzteko sistema martxan jartzea edo Landaberri ikastolako bidea konpontzea izan dira horietako batzuk.

Zaballos jarduneko alkateak proposamenak entzun eta eskerrak eman dizkie guztiei haien lanarengatik. Udalak hainbat puntu aztertuko dituela esan du, eta Añarberi, San Marko Mankomunitateari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Donostiako Udalari ere eskaerak jakinaraziko dizkiela. Era berean, martxan jarriko diren hainbat ekimeni buruz hitz egin die, hala nola, herriko hainbat puntutan garbigune txikiak jarri nahi dituztela edo Oria ibaira egiten diren isuriak konpontzeko egingo diren lanak.

Hesian eta McOnak izango dira sanpedroetako euskal taldeak

Onintze, Huecco eta La Regadera taldeek joko dute larunbat gauean. 36.000 euro gastatu ditu udalak



Txus Alonso jaietako zinegotzia. TXINTXARRI

Txintxarri

Gero eta gutxiago falta da sanpedroetarako, eta batzuk hasiak dira planak egiten. Horretarako, batek baino gehiagok begiratuko du kontzertuen agenda. Udalak aurkeztu du dagoeneko. Ostiralean euskal taldeek joko dute Okendo plazan: Hesian eta McOnak izango dira oholtza gainean. Larunbatean Onintze, Huecco eta La Regaderaren txanda izango da.

Ibilbide luzea du Hesian talde nafarrak. 2006an sortu zuten, eta zazpi disko kaleratu dituzte. Aldarrikapen sozialak jasotzen dituzte hitzetan, punk-rock eta hardcore doinuak baliatuta. Ska estiloa ere uzartzen du. McOnak, berriz, Lekeition sortu zuten 2011n; lau disko kaleratu


dituzte orain arte. Folk-rock zeltiar estiloa jorrotzen du.

Larunbatean erdal taldeek hartuko dute Okendo plaza. Onintze bakarlarria aurkeztu dute gaueko kontzertu nagusi moduan. Seiren euskal taldean aritu izan da, baina bere ibilbidean bakarka hasi da, gaztelera kantatzen. 40 *Principales* irrati katean entzunenetakoa izan da pop abeslaria.

Huecco taldea ezagun egin zen Espainian *Pa mi guerrera* abestiarekin. Baita indarkeria matxistaren aurkako abesti bat egiteagatik ere: *Nos duele a todas*. Ska eta reagge estiloak uzartzen ditu. Azkenik, Miranda Ebrotik (Burgos, Espainia) etorriko da La Regadera.

Patxintxi saria, hautagai bila

Badatuz 2019ko San Pedro Jaiak, eta Ttakun Kultur Elkarteak 65 urtez gorako pertsona maitagarri eta goxoan omendu nahi ditu. Horretarako, Patxintxi sariak banatuko ditu beste behin. Sari berezi horretarako hautagaiak proposatu nahi dutenek hilaren 14ra arte dute aukera. Horretarako, aisia@ttakun.eus helbidera idatzi, Ttakunen bulegora ekarri, edo elkarte Facebook orrian eskuragarri dagoen formularioa bete behar dute.



Patxintxi sariak 2019

65 urtetik gorako
pertsona maitagarri eta goxoan



Lasarte-Oriako auto zirkuituko zuzengunean bildu ziren ibilgailu guztiak. Herritar ugari bildu zen horiek ikustera. TXINTXARRI

Iraganeko lasterketen arima, gogoan

San Sebastian Circuit Spirit ekimena hirugarrenez egin dute larunbatean. Nahiz eta irteera eta helmuga Donostian izan, Lasarte-Oriako zirkuitua izan zenaren zuzengune nagusian geldialdia egin dute parte-hartzaileek, auto zaletuen gozamenerako

Beñat Lizaso Garcia

Lasarte-Oriako zirkuitu zaharra gogora ekarri zuten larunbatean, San Sebastian Circuit Spirit ekitaldian. Goizeko 10:30ean irten ziren autoak Donostiatik, eta Lapurdiko eta Gipuzkoako hainbat herri zeharkatu zituzten. Lehen geldialdia Hondarribian egin zuten gero. Bazkaldu ondoren Jaizkibelera igo eta ibilbideak Gipuzkoan barna jarraitu zuten.

Lasarte-Oriara 17:45ak aldera iritsi ziren autoak. Bertan, herritarren gozamenerako ikusgai egon ziren tarte batez. Ferrari, Alfa Romeo, Triumph, Rolls Royce, Porsche, Mercedes... Nahiz eta auto klasikoak nagusitu, gama



Garai askotako ibilgailuak ikusi ahal izan ziren Lasarte-Orian. TXINTXARRI

altuko kotxe berriagoak ikusteko aukera ere izan zen. Ikusmira handia sortu zuen ekitaldiak herrian. Lasarteoriatar asko

hurbildu ziren Oriako zuzengunera orain dela 90 urte bertatik abiadura bizian pasatzen ziren ibilgailuak ikustera.

Gerturatu egingo dute Aitzol Iriondo preso lasarteoriatarra

Hala ezagutarazi dio Frantziako Barne Ministerioko iturriek Coviteri. Egun, herritik 808 kilometrora dago

Txintxarri

Etetik 808 kilometrora preso da Aitzol Iriondo herritarra, 2008an atxilotu zutenetik. Hamahiru urteko kartzela zigorra betetzen ari da, lehergaia egiteko erabil daitekeen materiala lapurtzea leporatuta. Frantziako Barne Ministerioko iturriek Covite biktimen elkarteari jakinarazi diotenez, datozen egunetan gerturatu egingo dute lasarteoriatarra Ipar Euskal Herritik hurbil dagoen espetxeetarako batera ekarrita.

Aste honetan albiste izan da ere Iriondo, ezbehar batengatik. Izan ere, asteburuan bera bisitatzea joan ziren zenbait lagunek, -horietako bi herritarrek- sekulako sustoa hartu zuten: auto istripua izan zuten Moulins Yzeuren espetxetik (Frantzia erdialdean) 80 bat kilometrora. Kamioi bat

aurreratzen ari zirela orein bat gurutatu zitzaie, eta horrek eragin zuen ezbeharra. Zorionez, gidariak ez zuen kotxearen kontrola galdu, eta ez zen inor zauritu. Autoak izan zituen kalte handienak: kolpearen eraginez aurreko zatia, kopilotoaren aldeko atea eta faroen kristalak hondatu ziren. Hala ere, aurrera jarraitu zuten bisita egin ahal izateko.

Espainiar Estatuaren dispersio politika "ankerra" izan da istripuaren eragile, hainbatek salatu dutenez.

Beste bi herritar urruti

Lasarte-Oriako beste bi preso ere badaude urruneko kartzelatan. Xabi Gallaga Kordoban dago espetxeratuta, 810 kilometrora. Ibon Fernandez Iradi, berriz, Lannemezanen (Okzitania, Frantzia) dago, 200 bat kilometrora, gaixo.



Presoak jaioterrira hurbiltzea eskatzeko herrian eginiko manifestazioa. TXINTXARRI

ABENTURA PARKEA

2007-2011 bitartean jaiok

Irteera 9:30ean (Zumaburuko autobus geltokian)
Iritsiera 18:00etan

Prezioa: 30 € ez bazkideak // 27€ bazkideak
ERAMAN BEHARREKOAK: Oinetako eta arropa eroso.

Hamaiketako eta bazkaria.

Plazak mugatuak dira. Izena emateko epea: Ekainak 17 arte

EKAINAK 24



BERTIZ ABENTURA PARK



Ideia bat piztu ondoren datorrena



Ikerkuntza eta zientzia kaleko jendearengandik urruti daude askotan. Hala ere, egunerokoa errazten diguten gauza txikiek nahiz ingurua goitik behera aldatu duten berrikuntzek, guztiek, ikerketan dute sorburua. Ideia piztu, landu eta garatu izanaren emaitza dira. Urtetan gogoia, ezagutza eta ordu asko horretara bideratu duten hamaika lagunen ahaleginarena. Hori nahikoa ez balitz, gainera, hizkuntzaren muga ere gainditu behar izaten dute maiz. Ingelesa nagusi den esparru horretan, euskaraz jardutea posible dela beste behin erakutsi dute IkerGazte kongresuan. Joan den astean, Baionan, euren lanaren lagin bat erakutsi dutenen artean, gutxienez hiru lasarteoriatarak dira. TXINTXARRI haiekin harremanetan jarri da aztertzen ari diren horren berri izateko. Zer ote dute esku artean?

Maitane Aldanondo

ARGAZKIA: @jannoon028/Freepic

"Erakutsi dugu euskaraz azaldu, ulertu eta komunika gaitezkeela"

JOSU OLMOS

Energia berriztagarrien alorrean dihardu ingeniari gazteak. Trenbideetako garraiobideen isuriak murrizten laguntzeko superkondentsadoreak aztertzen ari da

Judoan ondo moldatzeaz gain, ikasketetan ere bide bera darama Josu Olmosek (1995). Energia Berriztagarrien Ingeniaritza gradua ikasi zuen, eta alor bereko Kontrola Sare Elektriko Adimentsu eta Sorkuntza Banatua masterra ere badu. Biak 9ko notatik gorako emaitzekin. Urtarrilean, aurrerapausoa eman eta doktoregoa hasi zuen Ikerlan zentro teknologikoan.

CAF enpresarekin lotura du tesiak. Horregatik, aztergaia da trenbideetako aplikazioetan biltegitratze teknologiak integratzeko dauden joerak eta zer teknologia berri inplementa daitezkeen ikustea. Olmosen lanaren xedeetako bat energia kontsumoa eta isuri kutsakorrak

mugatzea da. Hemen inguruan, elektrizitatea baliatu ohi dute, eta horrek sarearen aldetik gastu bat du. Gainera, hartutako guztia ez da berriztagarriek sortua. Diesela darabilten lekuetan, aldiz, isurketak desagerrarazi edo txikituko lituzkete.

Tranbietarako energia

Zabalagoa izango den lan horren lagin bat aurkeztu du IkerGazte kongresuan. Zehazki, modelo bat garatu dute tranbietan erabilia ultrakondentsadoreek edo superkondentsadoreek zenbat iraun dezaketen aurreikuszeko. Izan ere, bateriek bezala gaitasuna galdu eta "hil" egiten dira. Egindako eredu horri esker, enpresek azterketa ekonomiko bat egin dezakete. Olmosen

esanetan, biltegitratze sistema hauek, "baterien antzekoak dira, baina haiek energia asko ematen dute, eta hauek, potentzia handia. Autonomia txikia izan arren, oso azkar kargatzen dira". Halakoak egokiak dira tranbietarako, bide laburrak egiten dituztelako, eta azkar kargatzen direnez, geltokiak balia ditzakete horretarako.

Tesia ingelesez idatziko du, "nazioartekoa izatea eskatzen digutelako", baina egunerokoa lanean euskaraz dihardu. Ikerketa alorrean ingeleza nagusi izan arren, IkerGazte bezalako ahaleginak "garrantzitsuak" direla uste du. "Esan ohi dute hizkuntza batzuek ez dutela balio ezaugarri oso teknikoak dituzten alorretarako, baina horrelako kongresuekin agerian uzten dute



Josu Olmos. TXINTXARRI

posible dela. Askotariko lanak zeuden. Erakutsi dugu euskaraz egin daitezkeela; azaldu, ulertu eta komunika gaitezkeela".

Tesiarekin nahikoa lan du oraingoz, hala ere, bere bidea ikerketan edo unibertsitatean irakasle ikusten du.

"Ur kudeaketa jasangarri baterako oinarria da ikerketa"

MARIA VALIENTE

Geologian gradua eta Hidrogeologian masterra osatua ditu. Klima aldaketak ur arroetan duen eragina leuntzeko landaretza, zorua eta uraren arteko katea aztertzen ari da

Graduan espediente onenari saria jaso zuen Maria Valientek (1995). Orain, masterra osatuta, beka batekin doktorego ikasketen lehen urratsak egiten ari da Leioako campusean. Landaretza, zorua eta uraren arteko katean du jarrita bere arreta, lotura ulertu eta aldaketa klimatikoak izan ditzakeen ondorioak leuntzeko xedez.

Valienteren hitzetan, "ur kudeaketa jasangarri baterako oinarria da ikerketa. Lurralde antolamenduaren eta lurzoru kudeaketaren aldetik zer egin jakiteko uraren ibilguak ulertzea, arroan duen banaketa". Bidasoako arroa du aztergai. Hango abeltzaintza lurrak abandonatzen ari dira, eta haien ordez, pinuak landatzen edo naturalki basotzen ari dira. Horrek uretan izango duen eragina neurtu nahi du,

klima aldaketak areagotuko ote duen aurreikusteko eta horren aurrean zer egin jakiteko. Alegia, "lurralde nola antolatu aldaketa horiek uretan eragin txikiagoa izateko. Agian, pinua landatzea komeni da, edo abeltzaintza mantentzeko diru laguntzak eman...". Horretarako kontuan hartzen ditu joera horrek duen eragina ezaugarri fisiko eta kimikoetan nahiz uraren banaketan, bai denboran bai espazioan.

Baliabideak euskaratu

IkerGazten aurkeztutakoa master amaierako lana da, arro hidrologia alorrekoa, baina zehatzagoa. Hiru hilabetez, Bartzelonako CSICeko IDAEA institutuan gainazaleko urak datatzeko metodologia berri bat baliatu zuen. "Emaizta oso onak

izan ziren, apenas erabili den metodologia bat da. Natur zientzietako kongresu handienetako batean aurkeztu zuten Vienan, eta arrakasta handia izan du hidrologia alorrean".

Metodologia hori poster batean eta hiru minutuko aurkezpen batean laburtu zuen. Pauso handia dela uste du Valientek, "Europar arrakasta handia izan duen gai bat euskaratzea, gure hizkuntzan edukitzea garrantzitsua da". Izan ere, bilkura bera aukera ona iruditzen zaio euskarazko bibliografia eta tresna berriak sortzeko. Beharra ondo ezagutzen du, euskaraz lana egiten badu ere, darabilen bibliografia gehiena ingelesez baitago.

Estreinako aldia zuen kongresu batean. Bizipen "polita" izan da,



Maria Valiente. TXINTXARRI

"asko ikasten duzu, zure gaia ez den beste hainbati buruz". Zer aurkeztu badu, bi urte barru bueltatu nahi du.

Arlo akademikotik kanpo ingurumenaren garrantziaz jabetzeko urratsa oraindik egiteko dagoela uste du. Hala

ere, urak duen garrantzia irakasten saiatzen da bere ingurukoei. "Funtsezkoa da. Txikitan beti azaltzen digute birziklatzen dela, ez dela petrolio bezala mugatua. Baina ez da hala. Ura bukatuko da. Hori ulertzen erraza da".

"Eremu guztiak hartu behar ditu euskarak"

JON ALKORTA

Euskal filologia ikasi eta hizkuntzalaritzari buruzko bi master egin ondoren, doktoregoari eutsi zion lasarteoriarrak. Hizkuntza bera du lanabes eta aztergai

Hizkuntzekiko interesak Euskal filologia ikastera eraman zuen Jon Alkorta, eta orain Donostiako Informatika fakultateko IXA taldean doktorego tesia amaitzen ari da. Hizkuntza Azterketa eta Prozesamendua masterra egin eta hartan sakondu zuen. Euskararen sentimendu balentzia eraldatzaileak identifikatzen ari da, testu batek iritzi positiboa edo negatiboa duen jakiteko unean eragin handia baitute.

Labur azalduta, hitzei balio bat ematen die balorazio edo sentimenduaren arabera. -5 eta +5 arteko balioak ezarrita sentimendu bakoitzari, oso positibotik, oso negatibora. Esaterako, *bikain* +5 eta *itsusi* -3. Testuan hitz horiek agertzen

diren bakoitzean, balioa jarri eta eragiketa egiten da. Ez da hain erraza, ordea. "Balentzia eraldatzaileak izeneko fenomenoak daude, hitz horien balioa edo balentzia aldatzen dutenak. Ez da gauza bera *ondo* edo *oso ondo* edo *ezin hobeki* eta *ezin irabazi*".

Duela lau urte lehen kongresuan izan zen Durangon, eta aurten bere lanaren zati bat jasotzen duen posterra eraman du Baionara. Berea azaldu eta beste "lan interesgarri asko" ezagutu ditu: kortsarioen gutunak, Korrikaren kantak, bareak...

Helburua euskararentzat sentimendu analisiko atazak burutzeko tresnak eta baliabideak sortzea da. Hain zuzen ere, bere



Jon Alkorta. TXINTXARRI

lana aurrera eraman ahal izateko, oinarrizko baliabideak prestatu egin behar izan ditu, euskaraz ez baitzeuden. Iritzi corpus bat

ere atondu du askotariko gaien inguruko iritzi testuak gehituta; baita sentimendu lexikoia osatu du euskaraz, erdarazkoak itzulita.

Are gehiago, egindako azterlanak bide eman dezake hartan oinarritutako tresna bat gauzatzeko iritziak automatikoki aztertuko dituenak; eta eraturako iritzi corpusa ere beste ikerketa batzuetan baliatu dezakete.

Alkortaren iritziak, "hizkuntza batek normalizatua egoteko beharrezkoak ditu halako baliabideak. Eremu guztiak hartu behar ditu euskarak". Ondorioz, euskaraz ikertzea funtsezkoa da, batetik, "beste hizkuntzen pare" delako horrela, "prestigioagatik"; eta bestetik, ikerketa alorrean sartzen bada, euskaraz terminologia "gero eta aberatsagoa, gero eta naturalagoa" egongo baita.

Lau urte eman dizkio ikerketari eta ibilbide profesionala ere emateko prest dago; nahiz eta jakin "oso ezegonkorra" dela. Era berean, uste du ikertutakoa ez dela "ondo saltzen", gizarteak positibotzat jo arren jardun hori.

Asteburu sorgindua

Teresa sorgina jaistean lehertu da festa Zabaleta auzoan



Dinbi Banda batukada taldeak girotu zuen ostiral arratsaldea. TXINTXARRI



1a 70 lasterkari aritu dira VI. Sorgin Krosean. TXINTXARRI



Ostiral arratsaldean jaitsi zen Teresa sorgina Zabaletara. Orduan lehertu zen festa. TXINTXARRI



Aurtengo jaietako ekintza gehienak pilotaleku alboan egin dituzte. Jende ugari parte hartu du. TXINTXARRI



Maddalen Arzallus bertsolaria, Zabaletako jaietako zapi morea lotzen. Antton Garinek lagundu zion. TXINTXARRI



Kukuka eskolako ikasle gazteenak ederki aritu ziren igandean. TXINTXARRI



Ruben Sanchez auzotarrak omenaldi xume baina goxoa jaso du aurtengo festetan. TXINTXARRI



Lau taldek parte hartu zuten igande eguerdiko proba mixtan. TXINTXARRI

Zabaletako jaiak tokiz aldatu dira aurten: Antonio Blas plazatik duela hilabete gutxi inauguratutako pilotalekura egin dute jauzi. Aldatu da lekua, baina ez ospakizunen esentzia: herritarren zentzumen guztiak piztu dituzte aurten ere festek. Ate-joka ari den udara ikusteko, entzuteko, usaintzeko eta dastatzeko egunak izan dira.

Teresa jaistean lehertu zen festa ostiral arratsaldean. Sorgin-dantzarekin egin zioten agurra Teresategi menditik etorritako sorginari. Jalgune elkarteko eta Gazte Klubeko neska-mutilek gogotik egin zuten dantza ondoren. Emanaldi gehiago ere izan ziren: Kukuka eskolako antzerki taldeenak, Dinbi Banda batukada taldearena eta Gazte Klubekoen bingoa, esate baterako. Gauean, asteburuko aurreneko parranda: Louh music talde gazteak hainbat bertsio jo zituen, eta Kontuz Erromeriyak gaueko ordu txikietara arte luzatu zuen jai giroa.

Larunbat goizean jokatu zuten seigarren Sorgin Krosa. Ia 70 korrikalarik parte hartu dute aurten. Aritz Garin villabonatarrek eta Pili Bodegas herritarrek irabazi dute. Arratsalde partean hitzek egin zuten lasterka: saio ederra eskaini zuten Ane Labakak, Maddalen Arzallusek, Asier Azpirozek eta Beñat Gaztelumendik. Arzallus eta Azpiroz aurrenekoz aritu zirenez, Zabaletako jaietako zapi moreak jantzi zituzten lepoaren bueltan. Antton Garinek lagundu zien horretan. Gauean, asteburuko bigarren parranda: Bad Sound bikotearen reggae doinuek dantzan jarri zuten frontoia. Gozo-gozo erromeria aritu zen ondoren.

Bezperako ajea kentzeko, dantza eta kirola. Kukuka eskolako hainbat gaztek emanaldiak eskaini zituzten pilotalekuan. Horren ostean, Lasarte-Oria eta Zabaletaren arteko pilota partida. Auzotarrek irabazi zuten, 15-18. Urteroko proba mixta frontoi alboan jokatu zen. Omenaldi pare bat ere egin zizkieten Ruben Sanchez eta Iraia Iparragirre auzotarrei.



Suaren inguruan egindako akelarreak ireki zuten larunbat gaua. TXINTXARRI



Bad Sound taldeak dantzan jarri zuten Zabaleta larunbat gauean. TXINTXARRI

"Inoiz ez ninduten modu horretan animatu"

XANTI TRANTXE MENDI LASTERKARIA

Azken unean dortsala egokituta, Zegama-Aizkorri mendi maratonia osatu du herriko korrikalariak. Bero itogarria gorabehera, lasterketa txukuna egin du, 5:48 denboran

Adrian Garcia

Euskal Herriko mendi korrikalari ia guztien ametsa da: Zegama-Aizkorri parte hartzea, eta txukun bukatzea. Xanti Trantxek lortu du balentria, dortsala "errebotez" egokitu ondoren. Lehen zozketan ez zuen zorterik izan, baina itxaron zerrendan ondo kokatuta zegoen, eta orain hilabete deitu zioten izen ematea baieztatuzko. "Esperientzia bakarra da, bizitzan behin egitekoa". Zortzi urtez zozketak bizkarra eman ondoren lortu du dortsala preziatua.

Korrikalari gutxi esan dezakete munduko maratoirik garrantzitsuenetakoan parte hartu dutela, momentuko mendi lasterketako izarrekin.

Bai. Txirrindularitza zale bati Tourraren etapa batean parte hartzeko gonbita egingo baliote bezala da. Egun berezia da Zegaman; furgonetaz betetzen da, jende mordoia etortzen da kanpotik. Emozionalki oso polita da, eta fisikoki gogorra. Bero handia egin zuen, eta asko edan arren, korrikalari askok karranpekin bukatu zuten.

Leitzako ultra egin zenuen aurretik, 68 kilometroko lasterketa. Hortaz, ondo prestatuta egingo zenuen Zegamako maratonia, ezta?

Bai, burua Zegaman jarrita egin nuen Leitzako Mendi Erronka. Lanak eginak nituen; ultra bat prestatzeko orduak sartu behar dituzu.

Lasterketa asko eginak dituzu. Zegamaren antzekorik ba al dago?

Giro aldetik ikusita, ez dago horrelakorik. Ez dauka zerikusirik beste ezerekin. Aratzen, Aizkorri... jende mordoia dago ikusten eta animatzen. Ikaragarria da nola bultzatzen duten. Inoiz ez ninduten horrela animatu. Dortsalean jartzen zuen nire izena, eta garrasi egiten zidaten, nire kuadrillako lagunak balira bezala. Bizi egin behar da; kontatzen baduzu, ez dizute sinetsiko. Maldan gora min guztiak joaten zaizkizu; jendeak egindako korridore batetik pasatzen zara, Tourrean bezala.

Zaila izango da burua hotz mantentzea, gehiegi ez estutzeko animoek bultzatuta.

"GIRO ALDETIK EZ DAGO HORRELAKORIK, EZ DAUKA ZERIKUSIRIK BESTE EZEREKIN"

Noski, goraka egindako gehiegikeriak ordaindu egiten dituzu gero. Gu ez gaude ohituta horrenbeste animo jasotzera. Jendearen animoek gora eramaten zaituzte, egia da.

5:48 ordutan egin zenuen lasterketa. Marka da, batez ere egin zuen beroa kontuan hartuta.

Oso pozik nago. Hasieran neurtzen joan nintzen, eguraldiarengatik. Aizkorri igo ondoren, azken kilometroak behar dira. Eta hor hasi zitzaizkidan karranpak, iskiotibialak ukituta nituen. Lauzpabost aldiz gelditu nintzen luzatzeko, baina aparteko arazorik gabe. Gozatzen jarraitu nuen, nahiz eta gehiegi ez estutu.

Zein izan da zuretzat lasterketako unerik politena?

Asko daude, ezingo nuke bat aukeratu. Aratzen Lasarteko jendea bazegoen; asko harritu ziren ni ikustean, ez baitzekiten dortsala nuenik. Aizkorriko Sancti Spiritu pasa eta gero, lehendabiziko maldan ikaragarria da nola dagoen jendea, builaka. Baita Aizkorriko azken zatian ere. Urbian ere eguraldi ederra egiten zuen; ikusle asko elkartu ziren. Boluntarioen lana aipatzekoa da; hor ibiltzen dira, ura botatzen eta dena garbitzen...



Xanti Trantxe, lasterketaren une batean. JAVI OLAZAGOITIA



Ollokiegi eta Hernandez, Zegamako helmugan.

Gazteak ere, Zegaman ate joka

Zegaman izan ziren Xanti Trantxek gainera beste hainbat ordezkari ere. Esaterako, junior lasterketan parte hartu zuten Jon Ollokiegik eta Pablo Hernandezek. 10 kilometroko lasterketa 1:00:40 denboran egin zuen Hernandezek; 1:02:52 denbora behar izan zuen Ollokiegik. 59. eta 53. postuan sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Patxintxi sariak 2019

- Zuretzat, nor da pertsonarik goxo eta maitagarriena?

.....

- Nola jarri gaitzke berarekin harremanetan? (kontaktua)

.....

Zure izena eta kontaktua:.....

itsatsi zure
hautagaiaren
argazkia

Patxintxi sariak 2019

65 urtetik gorako
pertsona maitagarri eta goxoena

Bidali zure hautagaiak
ekainaren 14ra arte

Ttakuneko bulegoan,
aisia@ttakun.eus-era edo
Ttakuneko sare sozialetara

Sari banaketa San Pedroetako txupinean!



Goizeko partida Hernani eta Pinguinas Burgos taldeek jokatu zuten. TXINTXARRI

Errugbia, Aitor Uranga zena gogoratzeko

Beltzak klubeko kide zena omentzeko III. txapelketa jokatu dute asteburuan. Emakumeetan Hernani eta Pinguinas Burgos nor baino nor aritu dira. Gizonezkoetan, berriz, Beltzak Lasarteorians, Atletico San Sebastian eta RAC Lobos taldeak

Beñat Lizaso Garcia

Aitor Uranga omentzeko asmoz zelairatu ziren errugbilariak Michelingo berdegunera. Eguna Beltzak Ostadar errugbi eskolako jokalaririk, guraso eta entrenatzaileen arteko partida jokatu hasi zuten.

Txapelketari hasiera Hernani eta Pinguinas Burgoseko neskek eman zioten, 11:30ean. Hernaniarrak indartsu zelairatu ziren, eta Burgosekoek zailtasunak izan zituzten hauei aurre egiteko. "Bultza Hernani!" oihu artean lortu zituzten txapelketako lehen entseguak gipuzkoarrek.

Arratsaldean, Jesus Zaballos jarduneko alkateak eta Txus Alonso Kirol zinegotziak goizean jokatu zen norgehiagokako sariak banatu zituzten. Txapelketako irabazleak hernaniarrak izan ziren. Horrez gainera, Paola Vega jokalaririk lasarteoriatarrak sari berezia eman zioten, senior taldearekin debuta egiteagatik.

Sari banaketa eta gero gizonezkoen txanda etorri zen. Lehenengo partida Atletico San Sebastian - RAC Lobosen artean jokatu zuten. Epaileak partidari hasiera eman aurretik Iñaki Vergarak, Espainiako Errugbiko Epaileen Batzordeko lehendakariak, ohorezko sarea egin zuen. Donostiarrek arratsaldeko lehen garaipena lortu zuten Segoviako taldearen aurka.

Bigarren partidaren Beltzak Lasarteorians eta Atletico San Sebastian izan ziren aurre. Talde txuri-urdinak txapelketa emango zion garaipena lortu zuen herritarren aurka.

JAI GIROA NAGUSITU ZEN LARUNBATEKO JARDUNALDIAN, MICHELIN GUNEKO ZELAIAN

Azkeneko partida ARC Lobos eta Beltzak Lasarteorians izan zen. Partida horretan erabaki ziren bigarren eta hirugarren postuak. Segoviakoak izan ziren garaile. Lasarteoriatarrak, hortaz, hirugarren gelditu ziren.

Txapelketa eta gizonezkoen sari banaketa bukatu ostean, hirugarren denbora Loidi pilotalekuan egin zuten. Txapelketan parte hartu zuten taldeek giro paregabe eman zioten amaiera egunari.

Beltzak Lasarteorians

Txapelketan Lasarte-Oriako hainbat errugbilarik osatutako gizonezkoen taldeak parte hartu zuen. Beste talde batzuetan jokatu arren, talde berean batu ziren herriko jokalariek.

Jokatzen jarraitzen duten kirolariek gain, Aitor Uranga omentzeko berriro galtza motzak eta takodun botak jarri zituenik ere izan zen osatutako taldearen hamabostekoan.

Gutxieneko markak metatzen jarraitzen dute igerilari gazteek

Euskadiko Eskolarteko txapelketan eta Gipuzkoako sarian izan dira Buruntzaldea IKTko kirolariak

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilari gazteek bi hitzordu garrantzitsu izan zituzten maiatzaren 25ean: Euskadiko XXXVIII. Eskolarteko Txapelketa eta Gipuzkoako Sarien B Zirkuituko bigarren saria. Gehienek markak ondu zituzten, eta Espainiako zein Euskadiko txapelketetarako gutxienekoak ere eskuratu zituzten.

Lehen proban, taldeko hamahiru igerilari izan ziren Gipuzkoako Selektzioarekin lehen. Markak hobetu zituzten.

Azpirarragarriak dira June Lopezek Euskal Herriko Txapelketarako gutxieneko berria eta Jon Pelayok 200 m. tximeleta proban ezarritako taldeko marka berria. Lopezek 200 m. bizkar proban lortu zuen marka, eta oraingoz bi probatan lehiatuko da Euskal Herriko txapelketan; 100 m. eta 200 m. bizkar probetan.

Horrez gain, Zarautzen Gipuzkoako Sarien B Zirkuituko bigarren saria jokatu zuten. Bertan Aimar Sukunza, Unax Goenaga, Inge Etxezarreta eta Garazi Irigoras igerilari gazteak izan ziren.

Txapelketako posturik onena Goenagak egin zuen, 400 m. libre proban. Infantil mailako laugarren eta absolutu mailako bosgarren izan zen. 5:16,10 markari esker, Gipuzkoako Txapelketarako txartela eskuratu du.

Gipuzkoako Txapelketarako gutxienekotik gertu izan zen Etxezarreta ere. 200 m. estilo proban 3:13,17 egin zuen. Estilo libreko 100 metroko marka eta 50 metroko markak ere hobetu zituen. Irigorasek, berriz, 200 metro lau estiloetako marka eta 200 metro bizkar estilokoak ondu zituen.

Zudaire, Berlinean

Bestalde, Nahia Zudaire Berlinean da. Ostegunetik igandera jokatzeko ari diren 33. IDM BERLIN 2019. World Para Swim World Series proban lehiatuko da Buruntzaldea IKTko gaztea Espainiako selektzioarekin.

Zudairek sei probatan parte hartuko du: 50 m., 200 m., 400 m. eta 800 m. librean, 100 m. tximeleta proban eta 200 m. lau estiloetan.

Munduko Txapelketa prestatzua izango da hau Zudairentzat, Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu duenez.

Fuenlabrada Bigarren Mailan izango da hurrengo denboraldian

Ander Bardaji herritarrek beste igoera historiko bat pilatu du bere palmaresean. Fuenlabradak Bigarren Mailako igoerako finalerdietan, Recreativori gailendu ostean, lortu zuen balentria. Fernando Torres estadioan 3-0 irabazita ekainaren 2an, errenta mantentzeko asmoz jokatu zuen Fuenlabradak Colombino estadioan. Banako berdinketa lortu eta Madrigo taldea 2019-2020 denboraldian lehengo izango da Bigarren Mailan.

Ez dira emozioak amaitu ordea. Hurrengo astean, Bigarren B mailako txapela izango du jokoan Fuenlabradak; Racing Santander izango du arerio.

Maialen Chourraut, finalerdi at Europako txapelketan

Maialen Chourrautek Pauen (Frantzia) jokatu du Europako txapelketan hamabigarren postua lortu finalerdian, eta ezin izan zuen finala lehiatu.

Azken hilabeteetako emaitzak ikusita, lasarteoriatarrak domina lortzeko itxaropena zuen. Sailkapen saioari begira, ametsa egia bihurtuko zela zirudien. Bigarren denbora onena egin eta finalerdietako txartela lortu zuen; alabaina, finalerdian bi akats larri egin zituen atzetatik ateratzerakoan, eta finalerdi at geratu zen. Halere, baikor agertu da esperientziarekin, bere helburua La Seu d'Urgellen (Lleida) irailean lehiatuko duten Munduko txapelketa baita.



Bi taldeetako jokalariek elkarrekin atera zuten argazkia finala eta gero, kirol legez. TXINTXARRI

Patriciok irabazi du areto futbol txapelketa

Patricio Cocktail Bar taldeak altxa du aurtengo herriko areto futbol txapelketako kopa, finalean Insausti Tabernari 1-5 irabazita. Aitor Sanz atezaina izan da norgehiagokako jokalaria onena. Kontsolazio fasean Trumoi nagusitu da; 2-0 garaitu du Viña del Mar

Iñigo Gonzalez Sarobe

Kantxaren alde batean, ikaragarritzko poza. Bestean, erabateko tristura. Txanponaren bi aldeak. Horrelakoak ikusten dira urtero-urtero herriko areto futbol txapelketan. Aurtengoan Patricio Cocktail Bar taldeko jokalariek egin dute irribarre, eta iazko finaleko arantzatxoa atera: penaltietan galdu zuten Buenetxearen aurka. Larunbat arratsaldean, berriz, 1-5 irabazi zioten Insausti Tabernari, eta euren aurreneko txapelketa irabazi. Bi urte daramatzate parte hartzen, eta bietan iritsi dira finalera.

Insaustiren estatistikak ez dira askoz okerragoak. Azkeneko hiru urtetatik bitan jokatu dute final handia, eta iaz finalerdietan kaleratu zituzten. Bi final horiek galdu egin dituzte, ordea. Datorren urtean saiatuko dira berrir.

Larunbatean zertxobait hobeto kantxaratu zen Insausti, eta berak sortu zituen abagune garbienak. Esate baterako, txapelketako

golegile nagusi izan den Ander Pecharromanek sareetara bidali zuen falta jaurtiketa. Eskuin hankako barnealdearekin eman zion baloiari, eta Aitor Sanzen ate barrura sartu. Gorri-beltzek ez zuten gol gehiagorik ospatuko partida osoan.

Final batean gol bat jaso ostean bi aukera dituzte jokalariek: burua jaitsi eta etsi, edo are kemen gehiagorekin jokatu. Bigarren bidea hautatu zuen Patriciok, eta lehen zatiko minutu onenak jokatu. Nolakoa den futbola: Insaustik gertu izan zuen 2-0eko, baina jaurtiketa ongi defendatu zuten kontraerasora. Julen Bermejok ez zuen barkatu. Atsedenaldirako segundo gutxi

PATRICIOK BI URTE DARAMATZA TXAPELKETAN PARTE HARTZEN, ETA BIETAN JOKATU DU FINALA

falta zirela aurreratu ziren markagailuan, aldaratze bat sareetara bidaliz.

Bigarren zatian alde babestu bakarrik ez, areagotu egin zuen Patriciok: hiru gol gehiago sartu zituen. Asier Sanchez (2) eta Gorka Marcos izan ziren golegileak. Finalaren tentsioa tarteko, jokaldi beroren bat edo beste egon zen, baina partida bukatu ostean elkarrekin atera zuten argazkia bi taldeek, kirol legez.

Kontsolazioa, Trumoiarentzat

Txapelketaren faseko azken neurketaren aurretik beste final batez gozatu zuten Maialen Chourraut kiroldegira joan ziren ikusleek. Trumoi Tabernak irabazi du kontsolazio fasea, Viña del Mar 2-0 garaituta.

Txapelketako golegile nagusia Ander Pecharroman (Insausti) izan da. Finaleko jokalaria onena, berriz, Aitor Sanz (Patricio). Eta Buenetxeak jaso ditu gol gutxien. Udal ordezkariak banatu zituzten sariak.



Txapelketako hainbat jokalaria, udal ordezkariekin batera. TXINTXARRI

Kinin Calvo, garaile herriko squash txapelketa sozialean

Ikusgarria eta gogorra izan da finala: bosgarren setean erabaki da dena. Hirugarrenez jantzi du txapela Calvok

Txintxarri

Gogotik izerditu behar izan du Kinin Calvok herriko squash txapelketa sozialean hirugarrenez irabazteko. Gogorra eta ikusgarria izan zen Iker Cañedo eta bere arteko neurketa. Larunbat arratsaldean neurtu zituzten indarrak, Maialen Chourraut kiroldegian. Bosgarren setean erabaki zen dena. Emaitza, honako hau: 15-9, 14-17, 12-15, 15-10 eta 7-15.


Kontsolazio fasea Xabi Amianok irabazi zuen. Hiru setetan garaitu zuen Raul Mateos: 12-15, 6-15 eta 8-15. Hirugarren eta laugarren

postuak erabakitzeo norgehiagoka ez zen jokatu.

Txapelketako sariak Jesus Zaballos jarduneko alkateak eta Txus Alonso zinegotziak banatu zituzten, finalak bukatutakoan.

Hamarkada honetako irabazleak Kinin Calvok hirugarrenez jantzi du txapela aurtan. Aurreko bi txapelketak 2012an eta 2014an irabazi zituen.

Iñaki Garcia (2013, 2015 eta 2017), Agustin Erkizia, Alberto Udabe, Iker Cañedo eta Xabi Azaldegia izan dira hamarkada honetako gainontzeko irabazleak.



LOKE GIMNASTIKA


Getxon, denboraldi amaiera

LOKEko gimnasta gazteek txapelketen denboraldiari agur esan diote. Getxoko Torneoan lan ederra egin zuten. Infantil B mailako taldeak bigarren postua eskuratu zuten, eta bakarka, Alexia Barquin podiumetik oso gertu geratu zen, laugarren. Euskadiko Eskolarteko txapelketa ere jokatu zuten ekainaren 1ean. Eneritz Diaz de Gereñu alebina eta Barquin bera lehiatu ziren horretan. Lehen aldiz parte hartu zuten maila horretan, eta lehen hamarren artean amaitu zuten txapelketa.

ZORION AGURRAK



Xuban
Zorionak gure potxolito txikia!! Jada urtebete zure irrifarraz disfrutatzen! Muxu pila!!



Ibai
Zure aitaren partez zorionak. Ondo pasa maitea.



Iker
Parra egin ezazu hortzak daukazun bitartean. Zorionak Iker!.




Ekain eta Eneko
Zorionak bikote! Muxu haundi bat famili osoaren partetik.




Garazi
Zorionak prexioxa! Oso ondo pasa egun berezi hau familia eta lagunekin. Izugarri maite zaitugu!

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 07



Larunbata, 08




Igandea, 09




Astelehena, 10




Asteartea, 11



Asteazkena, 12



Osteguna, 13



JAIOTAKOAK

Aylen Cano Covelo. Maiatzaren 30ean.

HILDAKOAK

Joxe Ramon Iturzaeta Goenaga. Ekainaren 3an.
Arturo Rubio Bengoechea. Maiatzaren 31n.
Julio Tovar Molina. Maiatzaren 31n.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 7 GANDARIAS-URIBE
Larunbata, 8 DE MIGUEL
Igandea, 9 DE MIGUEL
Astelehena, 10 URUE
Asteartea, 11 DE MIGUEL
Asteazkena, 12 LASA
Osteguna, 13 GIL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | | | | | 9 | | 7 |
| | 8 | | 5 | 6 | | | |
| 4 | | 3 | | | 2 | | 6 |
| 5 | | 4 | 2 | | | 3 | 9 |
| | | 8 | | | 5 | 4 | |
| | 9 | | 3 | | | 6 | 1 |
| | | 7 | | 3 | 6 | | |
| 2 | 1 | | 4 | | | | 8 |
| | | 9 | | 2 | | 4 | 6 |

OHARRAK

Texas Lasartearra futbol entrenamenduak

Texas Lasartearra futbol taldeak hurrengo denboraldiko infantil eta kadete mailako taldeak (2004 eta 2007 urte arteko haurrak) osatzeko entrenamenduak egingo ditu hurrengo astean, ekainaren 10etik 13ra, 19:00etatik 20:30era Michelin kirol gunean. Futboleant aritu nahi duten gaztetxoei deialdia egin die saioetan parte hartzeko.

Sorgin dantzako entseguak

Hilabete baino gutxiago geratzen da San Pedro jaiei hasiera emateko. Hori dela eta, Sorgin dantza prestatzeko saioak egiten ari dira.

Entseguak ekainaren 24a arte izango dira, astearte eta ostegunetan, 20:00etatik 21:00etara Okendo plazan. Antolatzaileek ohartarazi dute, eguraldi txarra eginez gero, Okendo plazan guztiak bildu eta batera entsegu lekura joango direla.

Udako Txoko eta Kanpaldietako bilerak

Ttakun Kultur Elkarteak antolatzen dituen Udako Txokoetako eta Kanpaldietako bilerak izango dituzte gaur, ostirala, Manuel Lekuona kultur etxean.

HH5-LH6 mailakoek euskarazkoa bilera 17:45ean da; eta gaztelerakoa, 18:50ean. Larraulgo irteerako bilera 19:30ean da.

Kanpaldietako bilerak: Lezana 17:00etan, eta Donemiliaga 18:15ean.

Ostadar SKT futbol entrenamenduak

Ostadar SKTko futbol saila hurrengo denboraldia prestatzen hasi da dagoeneko. Futboleant aritu nahi duten gaztetxoei deialdia egin die entrenamendu saioetan parte hartzeko.

Gaur, kadete eta infantil mailako nesken entrenamendua izango da, 18:30etik 19:30era

Ostadarreko arduradunek kirol arropa egokia eramateko gomendioa egin diete entrenamendu horietan parte hartu nahi duten haurrei.

Zikero afariko txartelak

Urtero legez, Ttakun Kultur Elkarteak San Pedro egun bezperan Zikero afaria antolatu du. Hitzordua, ekainaren 28an, 21:30ean, izango da, Okendo plazan.

Zikero erre gozoaz gain, entsalada, postrea, kafea eta kopaz ere gozatuko dute mahaikideek.

Afarirako txartelak 20 euro balio ditu, eta astelehenetik, ekainak 10, aurrera Ttakun elkartearen egongo dira salgai. Txartelak eskuratzeko azken eguna ekainaren 21a da.

Eguzki areto futbol entrenamenduak


Eguzki taldeak areto futboleant jokatu nahi duten gaztetxoei deia egiten die. Hurrengo asteetan entrenamendu saioak egingo dituzte eta probatzeko aukera izango da.

Kirol eskolako neska-mutilek, 2008 eta 2011 urte artean jaiotakoek, ekainaren 14an eta 21ean 18:00etan izango dituzte saioak, Michelin guneko pilotalekuan. Infantil mailako neska-mutilek, gaur, ostirala, eta ekainaren 14an eta 21ean bilduko dira leku berean, 19:00etatik aurrera.

2004 eta 2005 urteetan jaiotako kadete mutilak Maialen Chourraut kiroldegian izango dituzte hitzorduak ekainaren 12an eta 19an, 20:15ean.

Jubenilek berriz, ekainaren 13an eta 20an izango dituzte saioak, 20:00etan, kiroldegian.

KOMIKIA



AZOKA TXIKIA

LANA
ESKARIA
 Zerbitzaria behar da Lasarte-Oriako taberna baterako. Interesatuak deitu: 607 110 365

ESKAINZA
 Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean

gauak ere egiteko prest. 606 661 048/943 404 015.
 Lan bila nabil, pertsona zaharrak edo haurrak zaintzeko prest, interna bezala, orduka, gauetan, asteburuetan. Telefonoa: 722 17 81 77.
 Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak

zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest. 663 488 438.
 Pertsona bat eskaintzen da zaintzaile gisa lan egiteko orduka, gauetan... Ziurtagiria eta urtetako eskarmentua. 652 246 070


NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira

TAMAINA BERRIA
 Modulo txikia. 12 € + BEZ
 publizitatea@ttakun.eus
 646.824466

TAMAINA BERRIA
 Modulo handia. 20 € + BEZ
 publizitatea@ttakun.eus
 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

| Antxisu | Zabaleta | Atsobakar | Kotxerak |
|---------|----------|-----------|----------|
| 08:00 | 08:10 | 08:15 | 08:20 |
| 08:40 | 08:50 | 08:55 | 09:00 |
| 10:30 | 10:40 | 10:45 | 10:50 |
| 11:00 | 11:10 | 11:15 | 11:20 |
| 11:30 | 11:40 | 11:45 | 11:50 |
| 12:05 | 12:15 | 12:20 | 12:25 |
| 12:30 | 12:40 | 12:45 | 12:50 |
| 13:00 | 13:10 | 13:15 | 13:20 |
| 13:30 | 13:40 | 13:45 | 13:50 |
| 16:30 | 16:40 | 16:45 | 16:50 |
| 17:00 | 17:10 | 17:15 | 17:20 |
| 19:30 | 19:40 | 19:45 | 19:50 |
| 20:00 | 20:10 | 20:15 | 20:20 |

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
 Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4 (behea)
 20160 LASARTE-ORIA
 G-20407557

Administraria
 Nerea Garziarena.

Erredakzioa
 Nerea Elizagirre, Iñigo Gonzalez,
 Maitane Aldanondo, Beñat Lizaso
 eta Adrian Garcia.

Publizitatea
 Irati Zatarain.

Laguntzaileak
 Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaleak
 Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia, Naiara Goikoetxea.

Informatika zerbitzuak
 IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
 Geltoki kalea 4 (behea)
 Tel.: 943 37 14 48 (106)
 WhatsApp: 646 82 44 66
 publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
 Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4
 Tel.: 943 37 14 48 (104)
 WhatsApp: 688 68 35 10
 txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
 Zerua Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
 UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
 POLITIKA SAILA
 DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Y POLITICA LINGÜISTICA




Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Antzerki eta Dantza hamabostaldia. Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideek euren lanak erakutsiko dituzte bai asteburuan bai astean zehar ere. Larunbatean helduen taldeak izango dira oholza gainean, dantza-garaikideko lanak eta *Fermin* antzezlanak eskainiko dute. Astean zehar, berriz, hainbat mailatako gaztetxoek txanda izango da. Larunbata, astelehena, astearte eta osteguna, Manuel Lekuona kultur etxea.



LASARTE-ORIA Dokumentala eta mahai ingurua *Trans-formatzen* dokumentala eskainiko da. Lanak transexualitatearen inguruko zalantzak eta iluntasunak argitzen ditu. Ikusleek errealitatea hamaika ikuspuntutik ezagutu dezakete, hala nola, *trans* pertsonak eta euren familiak, sexologoak, psikologoak eta antropologoak.

Dokumentalaren ondoren, NAIZEN Adingabeko Transen Euskadi eta Nafarroko guraso elkarteko kide bat, dokumentalaren sortzailea den Ekaitz Goikoetxea eta beste zenbait pertsonak mahai ingurua egingo dute. Bertan ikusleek ere parte hartzeko aukera izango dute.

Sarrera behar da, Manuel Lekuona Kultur etxean jaso daiteke.

Gaur, ostirala, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur etxea.

OSTIRALA 7

LASARTE-ORIA Erakusketa

Brancussi akademiako ikasleen ikasturte amaierako erakusketak ateak irekiko ditu. Erakusketa ikusgai izango da ekainaren 14a arte.

Antonio Mercero gunea, astelehenerik ostiralera, 18:00etatik 20:30era.

LASARTE-ORIA Garagardo dastaketa eta kontzertua

Euskal Herriko artisau garagardo dastaketa izango da, pintxo gozoz lagunduta. Ondoren, Big Bob Railroad taldeak blues kontzertua emango du. Txartela, 10 euro. Ilargi tabernan daude salgai. Ttakuenena, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Irekiera jaialdia

Elebeltzen sartu, herria okupatu jaialdia antolatu dute Elebeltz gunea berriro irekitzea ospatzeko. Kontzertuetarako sarrera, 4 euro. Egitaraua:

17:00etan, *Las cloacas del interior* dokumentala.

18:30ean, Elebeltzeko garai ezberdinetako kideen mahai-ingurua.

19:30ean, Maialen Aristegi kantautorearen emanaldia.

22:00etan, kontzertuak:

Skakeo
Txorroskilo
Rodeo

Ondoren, Yeltsin selektah, Yungo

biradisko, Bit Sound eta Jah Inity sound dj-en pintxada.

Elebeltz Topagunea, 17:00etatik aurrera.

ZUBIETA Elkarretaratzea

Elkartasun konzentrazioa deitu du Erraustegiaren Aurkako Mugimendua. Helburua da, erraustegia gelditzeko eskatzea eta bere burua larri zauritu duen pertsonari elkartasuna adieraztea.

Frontoia, 18:30ean.

ANDOAIN Antzerkia

Borobil Teatroak *Roman eta Julieta* antzezlanak oholzaratuko du. Sarrera, 12 euro.

Bastero kultur gunea, 21:30ean.

LARUNBATA 8

LASARTE-ORIA Antzerkia eta dantza

Kukuka antzerki eta dantza eskolako helduen taldeen emanaldia:

- Dantza-garaikidea
- *Fermin* antzezlanak

Manuel Lekuona kultur etxea, 22:00etan.

IGANDEA 9

AGINAGA Jaia

Gipuzkoako eskola txikien jaiak antolatu dute:

10:00etan, Txistulariak (1, 2, 3, 4 guneak)

10:30ean, Harrera ekitaldia (1). Aginagako haurren ikuskizun koloretsua.

11:15ean, Jokoak (1,2,3,4).

13:00etan, Yolanda Arrieta ipuin kontalaria 2-5 urte artekoentzat ludotekan (1).

14:00etan, Bazkaria (1).

15:00etan, Mustaren Perkusio Tailerra (1).

15:00etan, Puzgarriak (3).

15:30ean, Lopene eta bere animaliak (2).

16:30ean, *Sardiña Freskue* antzerkia (1).

18:00etan, Apar festa (1).

Guneak:

1. Eskola: Aginaga Kaxkoa.
2. Baserria: Usurbildik Aginaga heldu berritan ezkerretara geratzen den lur eremua.
3. Sagardoa: Aginaga Sagardotegi atariko aparkalekua.
4. Errioa: Aginaga sagardotegi ondoko eremua.

Aginaga, egun osoa.

ASTELEHENA 10

LASARTE-ORIA Antzerkia

Landaberi ikastolako 3. eta 4. mailako gazteen emanaldia:

- *Hakuna Matata*
- *Unilandia*
- *Landa-Txou*

Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

ASTEARTEA 11

LASARTE-ORIA Antzerkia

Landaberi ikastolako 1. eta 2. mailako gazteen emanaldia:

- *Errekaloreak*

ZINEMA

ANDOAIN

20:30, 22:00,
23:15, 00:40.
Larunbata: 16:30,
18:00, 19:15,
20:30, 22:00,
23:15, 00:40.
Igandea: 16:30,
18:00, 19:15,
20:30, 22:00.

Hermanos Sisters

Larunbata:
19:30, 22:00
Igandea: 19:30.

Astelehena:

19:30, 22:00.

Black is beltza

Astearte: 20:00.

USURBIL

FRONTOIAN

La chica danesa

Osteguna 13:
21:00.

URBIL

X-Men: Fénix

Oscuro

Ostirala: 16:30,
18:00, 19:15,

El sótano de Ma

Ostirala: 15:50,
18:05, 20:15,
22:50, 01:00.
Larunbata: 15:50,
18:05, 20:15,
22:50, 01:00.
Igandea:
15:50, 18:05,
20:15, 22:50.

John Wick: Capítulo 3

Parabellum

Ostirala:
16:45, 19:30,
22:15, 00:55.

Larunbata:
16:45, 19:30,
22:15, 00:55.

Igandea: 16:45,
19:30, 22:15.

Mr. Link: El Origen Perdido

Ostirala:
15:55 (eusk), 18:35.

Larunbata:
15:55 (eusk), 18:35.

Igandea:
15:55 (eusk), 18:35.

Vengadores: Endgame

Ostirala:

17:55, 21:30.

Larunbata:

17:55, 21:30.

Igandea:

17:55, 21:30.

Lo dejo cuando quiera

Ostirala:

20:40, 00:30.

Larunbata:

20:40, 00:30.

Igandea: 20:40.

El hijo

Ostirala:

15:45, 01:00.

Larunbata:

15:45, 01:00.

Igandea: 15:45.

Pokémon: Detective Pikachu

Ostirala: 15:45.

Larunbata: 15:45.

Igandea: 15:45.

OSTEGUNA 13

LASARTE-ORIA Antzerkia

Landaberi ikastolako 5. eta 6. maila:

- *Euskal Talent*

- *Grease*

- *Porrusaldy*

Manuel Lekuona, 19:00etan.

HERNANI Solasaldia

Erreferenduma egizu posible solasaldia antolatu du Gure Esku dago ekimenak.

Biteri kultur etxea, 19:00etan.

- Sorgiñak baserrian eta musikariak
Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

ASTEAZKENA 12

LASARTE-ORIA Aurkezpena

Ostadar Inklusio taldeak 2019-2020 denboraldiaren aurkezpena egingo du. Banakako kirolak eta taldekoak: saskibaloia, atletismoa, pilota...

Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

EPA LASARTE HHI 2019-2020 ikasturtea

MATRIKULA EPEA ZABALIK: Ekainaren 17tik 28ra

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionaturako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza** (DBHko titulu lortzeko moduluak).
- **Gaztelania atzerritarrentzat.**
- **EUSKARA (0-1-2 mailak).**
- **Informatika.**



Ordutegia:
10:00-13:00
(anbulategi gainean)

Tel. 943 37 64 43 / 943 36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.eus

kon2natu

progresiboak
+ eguzkitako progresiboak

229€

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15

Tel.: 943 37 74 55

LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS

lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com

ESKALA

SanMarko2019

Kanpaina hau abian ipini da herritar guztiari etxeetan sortzen dituzten hondakinak gaika bildu behar direla gogorarazteko.

Halaber, helburu hori azpimarratzen duten artelanak jarri dira hainbat eskaileretan (non dauden esteka honetan kontsulta dezakezu www.eskalasanmarko.eus) eta horiek ikusteaz gain, ekainean zehar ondorengo herrietan izango gaituz: Astigarraga, Donostia, Errenteria, Lasarte-Oria, Lezo, Pasaia eta Urnieta.

Puntu informatzailea Lasarte-Orian:

Ekainaren 25ean (asteartea), Okendo plazan, 16:00etatik 20:30era.

Ekainaren 26an (asteazkena), kale Nagusian, 9:30etik 14:00etara.

sanmarkos
Mankomunitatea

ecoembes
El poder de la colaboración

ecovidrio
IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEA
Gaur birziklatu, eraki geroa.

